

BALDINTZA OROKORRAK

Xedea

Agorrosin futbol zelaiko (berdegunea + aldagelak + ondoko eremuak + espacios anexos) egiteko exekuzio proiektua idaztea, segurtasun- eta osasun- azterlana egitea eta kalitatea kontrolatzeko proiektua.

Kontratu honek hainbat prestazio ditu, honela bereizita:

- Proiektua idaztea.

Kontratuaren lizitazio-aurrekontua hau da: 85.305,79 euro + BEZ (103.220 euro –BEZ barne–).

ZUZENEKO GASTUAK:..... 69.097,69

ZEHARKAKO GASTUAK:

- GASTU OROKORRAK (%13)..... 11.089,75
- ETEKIN INDUSTRIALA (%6)..... 5.118,35

EXEKUZIOAREN BATURA 85.305,79

BEZ (%21)..... 17.914,21

GUZTIRA..... 103.220

Kontrata edo lizitazio-oinarriaren bidezko exekuzio-aurrekontua –gastu orokorren % 13, industria-etekinaren % 6 eta BEZaren % 21 barne– honako diru-kopurua da: 103.220 euro.

Lanen garapena. Lanak egiteko faseak eta epea. Lanak baloratu eta ordaintzea.

Exekuzio-proiektua idaztea, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Lan-programa onartzean finkatzen diren epe partzialak kontratuaren zati bezala ulertuko dira legez dagokien ondorioetarako onarpenean zehaztutako ondorioekin.

1) PROIEKTUA IDAZTEA

103.220€ BEZ barne

Lehenengo eta behin, lanak entregatuta daudela, balorazioa egin beharko da eta ondoren etorriko da ordainketa, hainbat fasetan, ondoren zehaztu bezala:

1. Fasea Aldez aurreko lanak 2 aste gehienez %10

Lehenengo fase honetan egitekoak izango dira datuak biltzea, topografia, azterlan geoteknikoa ala behar izatekotan, egungo zerbitzuen kokapena eta proiektua idazteko jarraitu beharreko irizpideak zehaztea. Udalak eginiko aztelan hidraulikoa helaraziko zaio talde idazlerai eta kontuan izan beharko du proiektua idazteko orduan.

2. Fasea Aurreproiektua 3 aste gehienez %20

Udalak aipatutako irizpideak jarraiki talde idazleak aurreproiektua idatziko du. Bertan adieraziko dira distribuzio orokorraz gain zehazki nola gauzatzen diren sarrera irteera kontrolak, nola bermatzen den lpintzako eta piszinako gunera zein agorrosin futbol zelaira ibilgailuentzako sarrera, planteatzen den soluzioak ahalbideratzen ote duen eta nola Agorrosin kirol gunearekin lotura eta bertako hainbat instalazio handitzeko aukera, kirolari eta ikusleen zirkulazioak eta ebakuazioa.

Aurreproiektua BKeri aurkeztuko zaio, beraiek dagozkien aipamenak egin ditzaten eta URA Ur Agentziara helaraziko da.

BKEk aipamenak egiteko astebeteko epea izango du.

3. Fasea Futbol zelaiaaren exekuzio proiektua eta aldagelen oinarritzkoa %30

2 hilabete eta erdi gehienez

Bai Ur Agentziak zein BKEk adierazitakoak kontutan izanda hurrengoak egingo dira:

- Futbol zelaiaaren exekuzio proiektua
- Aldagelen oinarritzko proiektua

Fase honetan planteatuko dira eraikuntza-konponbideak, zerbitzuen kalkulua egingo da, tipologiaren eta eraikuntza-elementuen diseinua egingo da eta zerbitzu-sareak finkatu, udalarenak direnak zein ez direnak.

Planoetan, dela planimetriari dela altimetriari, zehatz-mehatz definitu beharko dituzte puntu determinatzaile guztiak; hori eginda, ikuskatzeko moduan egongo dira eta hurrengo faseari ekiteko prest.

Futbol zelaiaaren kasuan exekuzio proiektua idatziko da: delineazioa, neurketak eta aurrekontua; halaber, memoriari erantsiko zaizkion agiri guztiak idatziko dira eta, azkenik, proiektuko agiriak apailatu eta koadernoetan bilduko dira.

Udalak Futbol zelaiko lanak lizitazioan etara ahal izateko beharrezko dokumentazioa izango duen proiektua aurkeztu beharko da.

Aldagelen oinarritzko proiektua BKeri aurkeztuko zaio eta behin futbol zelaiaaren exekuzio proiektua izanda prestatu beharko da espazio soberakinen plano hau jendeaurrean azaltzeko eta espazio soberakinen analisisa egin eta apartazioak jasotzeko.

Aldagelen oinarritzko proiektua zein espazio soberakinen analisirako dokumentazioa jendeaurrean egongo da 2 asteko epean, epe berdinean BKEk dagozkion aipamenak egiteko aukera izango du.

4. Fasea Aldagelen exekuzio proiektua eta "espazio soberakin"en proiektua %40

Azken fase honetan egin beharra dago delineazioa, neurketak eta aurrekontua; halaber, memoriari erantsiko zaizkion agiri guztiak idatziko dira eta, azkenik, proiektuko agiriak apailatu eta koadernoetan bildu.

Exekuzio proiektua gehienez ere hilabeteko epean egin beharko da.

KONTRATUAREN XEDEA

Proiektua idaztea

PROIEKTUAREN EDUKIA.

Adjudikaziodunak proiektuaren BI ale aurkeztuko ditu, paperean, eta kopia bat bidaliko du euskarri informatikoan (Dwg, Word y Pdf).

Proiektua egin ondoren, kontratistak Administrazioari aurkeztuko dio, aztertu, onetsi eta zuinketa egin dezan. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuen Arloak aztertuko du proiektua, haren edukia Herri Administrazioetako Kontratuen gaineko Legearen Araudi Nagusiaren 136. artikuluan xedatutakoarekin bat datorren ala ez ikusteko.

Adjudikaziodunak SPKLren 107. artikuluan eskatutako agiri guztiak sartu beharko ditu obra-proiektuan; honako hauek, hain zuzen:

PROIEKTUEN EDUKIA ETA PROIEKTUA EGITEAREN ERANTZUKIZUNA:

• 1. Obra-proiektuen gutxienezko edukia:

a) Memoria bat, obrak zertarako diren adierazita eta hauek guztiak jasoko dituen: zer aurrekari dauden, zein den obra egin aurretik dagoen egoera, zer beharrian dauden asebetetzeko eta zer irtenbide hartu den, behar den moduan justifikatuta, eta kontuan hartu beharreko mota guztietako faktoreak zehaztuta.

b) Plano orokorrak eta zehatzak obra behar bezala zehaztuta gera dadin, behar diren planoak okupatuko diren lurra mugatzeko bai eta, kasuan kasu, zortasun-eskubideak zein gainerako eskubide errealak eta obrak egitean horren eragina izango duten zerbitzuak nola lehengoratu zehaztuko duten planoak ere.

c) Agindu tekniko berezien agiria; bertan deskribatuko dira obrak eta arautuko dira obrak egiteko lanak, ondo adierazita exekuzioa nola egingo den, kontratistak zer nolako betebeharrak teknikoak izango dituen, exekutatutako unitateak nola neurtuko diren, eta erabilitako materialen kalitatea eta exekuzioa nola kontrolatuko diren.

d) Aurrekontu bat, hainbat aurrekontu partzialek osatuta zein ez, eta ondokoak adieraziko dituen: unitateko prezioak eta, hala badagokio, prezio xehatuak, neurketen egoera eta aurrekontua baloratzeko behar diren xehetasunak.

e) Argibide moduan, lanak garatzeko egitarau bat edo obra burutzeko plana; hala badagokio, denborak eta kostuak aurrez zehaztuta.

f) Obra-zuinketak oinarri hartuko dituen mota guztietako erreferentziak.

g) Segurtasun- eta osasun-azterlanak, edo, kasuan kasu, segurtasun eta osasunari buruzko oinarriko azterlanak, obretako segurtasun- eta osasun-arauek ezartzen den bezala.

h) Lege edo erregelamenduzko arauetan ezartzen diren dokumentu guztiak.

• 2. Proiektuak eduki behar du obrak hartuko dituen lurzoruaren gaineko azterlan geotekniko bat eta, era berean, beharrezkoak diren txostenak eta azterlanak, aurretiaz eginak, kontratuaren xedea hobeto zedarritu ahal izateko.

• 3. Proiektuak eduki behar du lursailaren jasotze topografia UTM koordenadetan, proposamena gainjarrita izango du eta kotak egokituta haren jatorriaren arabera.

• 4. Beharrezkoa baldin bada, (argiak ipintzeko instalazio berria egin behar bada, edo lehengo instalazioa berritu) argiketa proiektua eta kaleko argien proiektuak indarrean dagoen arautegia bete beharko du.

Proiektuak oso-osorik definituko dira, hau da, ñabardura guzti-guztiak azalduz eta beharrezko agiri guztiak jasota; hartara, jendaurrean jarri ahal izango dira eta bermatuta geratuko da proiektua bera eraikiko dela eta funtzionamenduan jarriko dela.

• 5. Proiektuak nahitaez bete beharreko jarraibide teknikoetara egokituko dira.”

Gainera, indarrean dagoen sektore-araudian ezarritako agiri guztiak jaso beharko ditu, eta, azken batean, obra egoki gauzatzeko beharrezkoak diren agiri guztiak, horiek egiteko beste zenbait profesionalen partaidetza behar bada ere; hala ere, horrek ez dio kostu osagarrikerik eragingo administrazioari.

ERAIKITZEKO PROIEKTUAN AGERTU BEHAR DIREN AGIRIAK:

Aurreko guztia behar bada ere, aipatuko dugu zer nolako edukia izan beharko lukeen Proiektuak, orientazio gisa; hartara, proiektuaren zirriborro bat aurkeztuko du adjudikaziodunak Udala Bulego Teknikoko aparejadoreak eta arkitektoak behin betiko onar dezaten. Hona hemen, proiektu posible horren nondik norakoa:

a).- *Memoria*

AURREKARIAK

Jabe-sustatzailea.

Proiektuaren egilea.

Proiektuaren xedea. Beharrianen programa zehaztea.



Jabegoa ezartzea.
Baterako definizioa.
Proiektuan gauzatzea.

Proiektuaren ingurumari orokorrak, hala nola, lege, teknika eta ekonomiari buruzkoak.

Topografia

Egungo plangintza

Lursailaren gaineko datuak. Proiektuaren eremua. Okupazioak.

Lursailaren planoaren jatorria.

Planoaren kalitatea (teknikari batek eginga ala ez), topografikoa edo takimetricoa, e.a.

Lursailaren mugak, jabeak aurkeztu ote dituen eskriturak al ez, e.a.

Obra-tokia: Kokalekuaren planoaren arabera.

Azaleraren dimentsioa (m.2).

Lursailaren eskribapena: Konfigurazioa, forma, orientazioa, e.a.

Hirigintza erakunde eskudunak definitutako sestrak eta lerrokadurak, eskabidea, e.a.

Zerbitzuak: orain daudenak eta egingo direnak

Ura.

Estolderia.

Elektrifikazioa.

Gutxieneko urbanizazioa.

HARTUTAKO ERABAKIA

Erabakia deskribatuko da horren garapena azalduz eta programarako egokia ote den adieraziz.

Hala badagokio, deskribatuko dira hauek guztiak:

Azpiegiturak.

Urbanizazioa.

Eraikuntza.

Faseak.

Eraberritzeak.

Justifikatuko da hartutako erabakia alderdi hauek aintzat hartuta:

Hirigintza eta paisaia irizpideak

Kontzeptuen irizpideak.

Estetika irizpideak.

Konposizio irizpideak.

Eraikitze irizpideak.

Justifikatuko da hirigintza araudia betetzen ote den.

- Lurraren hirigintza kokapena. Legezko alderdiekin lotutako inguruabarrak: Egitasmoa Plangintza Orokorra, Plangintza Partziala, Urbanizazio proiektua, Arau Subsidiarioak, Lurzoruaren Legea eta hortik eratorritako arautegiak.

- Hirigintza sailkapenaren zedula. Hirigintza arauak: Adierazi betetzen ote diren..

- Hirigintza datuen koadroa.

- Hirigintza arautegi bereziak.

Justifikatuko da programan arautegi ofiziala betetzen ote den:

- Establezimendu publikoetako polizia arautegia.

- Laneko higiena eta segurtasunari buruzko antolamendu orokorra (Lan Ministerioaren 1972ko martxoaren 17ko Dekretua).

Teknika eta eraikitze sistema: Hartutako erabakiak azalduko dira, eta justifikatu, ikuspuntu teknologikotik edo eraikuntza ikuspuntutik.

Kalkuluak.



- Lur mugimenduak.
- Zimentazioa.
- Saneamendua.
- Egitura-forjatuak.
- Igeltsaritza.
- Arotzeria.
 - barnealdekoa
 - kanpoaldekoa
- Instalazioak.
 - elektrikoa. Kokapenak:
 - Hartuneak (hala badagokio).
 - Kontagailuen gela.
 - Transformazioa.
 - iturgintza. Kokapenak:
 - Ur hartuneak.
 - Kontagiluak (hala badagokio).
 - Presi otaldea.
 - Biltegiak.
 - Aireztatzea. Adierazi zer sistema erabiliko den hauetarako:
 - Garajeak.
 - Sotoak.
 - Beste instalazio batzuk:
 - Igogailuak, makineria-gelen nondik norakoa.
 - Suteak; espezifikazioak exigentziaren arabera..
 - Lurrerakoak; eskema.
- Zolak.
- Estaldurak.
- Amaierak.
- Urbanizazioa. Aurreratuko da nolako kalitatea eta testurak izango diren, hala badagokio, eta kasuan kasu, ordenantzetan exigitutakoen arabera eta administrazio arauen arabera beharrezko lizentziak edo baimenak eskuratzeko.
- Orubearen azalera okupatua eta librea, portzentajeak.
- Planoak azalera eta guzti, eta dagozkien koadroetan hauek zehaztuta:
Eraikitako azalera segun eta: – Erabilerak zein izango diren edo zertarako erabiliko diren.– Plantak.
Azalera erabilgarriak.

b).- Planoak

Era berean hona hemen, eta adibide gisa baita ere, proiektuak, gutxienez, izan behar dituen planoak.

INFORMAZIO-PLANOAK ETA KOKALEKUAREN PLANOAK:

1.- **KOKALEKUAREN PLANOA.** Elkargoan edo Udalerrian dagoen kartografiarekin lotuta egongo da. Kokalekuaren planoak nahitaez egingo du bat indarrean dagoen Planarekin eta haren eskala berean egon behar du.

2.- **KOKAPEN-PLANOA.** Honakoak izango ditu: lursailaren, orubearen edo partzelaren planoak, mailaren profilak, kotak edo kurbak adieraziz; mugak, kaleen zabalera eta bertan elkartzen diren gainerako gorabeherak sartuko dira. Era berean, existitzen direnean, uraren, argiaren, estolderiaren zerbitzuak eta proiektatutako eraikinaren kokapena azalduko dira. Arkitekto Proiektugilearen aukerakoa izango da proiektuaren planoei orubearen plano topografikoa eranstea, teknikari eskudunak sinatu ondoren. Beharrezkotzat joz gero, plano topografikoa jabetzak entregatu beharko du edo Arkitekto proiektugileak altxa beharko du. Ordainsaria proiektuaren ordainsaritik kanpo ordainduko da. Kokapen-planoan adierazitako justifikazio urbanistikoa; lerrokadurak seinalizatzea. Gutxieneko eskala: 1/200 edo 1/500, lursailaren ezaugarrien arabera.

3.- **LURREN EGUNGO EGOERAREN PLANO TOPOGRAFIKOA.**

4.- **EGUNGO EGOERA ETA PROIEKTATUTAKOA GAINJARTZEA.**

5.- **DAUDEN ZERBITZU-SAREAK.**

6.- ZIMENDATZEA, EGITURA ETA OFIZIOEN GAINEKO TXOSTENA: hitzez hitz adieraziko da Eraikuntzari buruz proiektuan egun indarrean dauden Gobernuko Lehendakariaren Arauak eta Etxebizitzaren Ministerioarenak betetzen direla, besteak beste, proiektuan onartutako Eraikuntzaren ekintzak, NBE-AE 88 Arauaren arabera; EHE eta eraikinaren kg-ren kalkulua eta eraikinaren isolamendu akustikoaren kalkulua. Elkargoak emandako galdeketak garatuko dira, horretarako.

PROIEKTUAREN PLANOAK ETA XEHETASUN-PLANOAK:

1.- MULTZOAREN ANTOLAMENDU OROKORRA (hala badagokio). Espazio libreen, berdeguneen, bide-sarearen, eraikuntzaren, patioen, lorategiaren eta abarren definizioa. Sekzioan zehaztuko da blokeen bereizketa eta altuera, bakoitzaren kotak ezarita. Gutxieneko eskala: 1/200.

2.- ZERBITZUEN ETA INSTALAZIOEN ESKEMAK (hala badagokio). Udalaren eskaeraren arabera:

- Saneamendua.
- Putzuak, putzu aseptikoak.
- Ura.
- Sare elektrikoa.
- Etab.

3.- ERAIKUNTZARI BURUZ.

- Banaketa-solairuak. Eraikinaren solairu desberdin guztiak irudikatuko dira, zehatz-mehatz akotatuta, altzari eta guzti, ateen biraketak eta azalera erabilgarriak eta eraikiak ere bai. Oinplanoan azalduko dira zer dimentsio eta zer kokapen izango dituzten, adibidez, aireztapen-tximiniak eta aireztatzeko patio txikiak, eta bainugeletako aparatu sanitarioak, berriz, euren kokapen errealean ageriko dira; halaber, hodienezko espazioa, zorrotenak eta muntagak sinboloen bidez irudikatuko dira. Gutxieneko eskala: 1/100.

- Estalki-solairuaren planoak. Azalduko da zein izango den isuritako uraren noranzkoa eta zehaztuko da non dauden hustubideak, aireztapenak, argi-zuloak, tximiniak, antena kolektiboa etab., eta igogailuaren makina-gelaren solairua xehe-xehe agertuko da. Gutxieneko eskala: 1/100.

- Altzatu orokorren planoak. Fatxada desberdin bakoitzeko bana aurkeztuko da eta bertan adieraziko dira, zehatz, kaleen sestrak eta horien gainean eraikinen altuera. Gutxieneko eskala: 1/100.

- Sekzio-planoak. Altuera kotak zehatz-mehatz ezarriko dira eta datu zehatzak izango dituzte eraikitako guztizko bolumena argi eta garbi eta tajuz kalkulatzeko. Gutxieneko eskala: 1/100.

- Zimentazio-planoak. Zuinketa egiteko behar diren zimendu-ardatzak edo erreferentziak eta kotak azalduko dira. Zapata isolatuen edo jarraituen dimentsioak izango ditu, planoaren gainean ondo akotatuak edo moten arabera, sailkapen-taula batean jarriak. Eustormak badaude, horien oinplanoa islatuko da eta adieraziko da hormak, buruan nahiz oinarrian, zer lodiera izango duen. Sekzio-xehetasun bat egingo da, gutxienez, dimentsioak akotatuz eta armadura azalduta. Gainera, ohartaraziko da euskarriak gainerako egituratik independenteak diren ala haiekin bat egiten duten. Zimendu berezien kasuan (lauza armatuak, paldoak, etab.), zimenduaren ardatz eta oinplanoaz gain, hormigoizko armatuaren elementuak adieraziko dira, hormigoizko ohiko egituretarako egiten den moduan. EH-73 Araua betetzeko zehaztapenen eta kontrolaren egoera-orria. Gutxieneko eskala: 1/100.

- Egitura-solairuen planoak. Eraikineko solairu desberdin guztiak adieraziko dira; zutabeak, habeak eta forjaketen noranzkoa zehaztu eta akotatuko dira. Patioen hutsuneak, eskailera-kaxak, tximiniak, igogailuaren hutsuneak, etab. adieraziko dira. Planoek honakoak izango dituzte: (Elementuen zehaztapenen eta kontrol-mailaren egoera-orriak. Gutxieneko eskala: 1/100).

Egiturarentzat.

- Hormigoizkoa; elementu guztiak agertuko dira, dimentsioak eta armadurak definituta. EH-73 Araua betetzeko zehaztapenen eta kontrolaren egoera-orria.

- Altzairuzkoa; adieraziko da zer profil erabiliko den pieza guztietan eta eraikuntza-detale guztiak korapiloei, estekadurei eta lotura-bitartekoei buruz.

- Hormigoizko armatuaren eta altzairuaren mistoak; elementu guztiak irudikatuko dira, hormigoizko elementuen eta metalezko profilen dimentsioak, armadurak eta eraikuntza-zehaztapenak definituz. Patentatutako sistemetan, gainera, legezko onarpenaren berri emango da, hala nola, ezaugarriak, muntaketa eta erreferentzia.

Forjatuentzat.

- Aldez aurretik fabrikatutako habexkak. Adieraziko da zer habexka-mota erabiliko den eta, armadura osagarriak behar badira, horiek ere bai. Halaber, aipatu egingo da legezko onarpena edo erabiltzeko baimen-ziurtagiria eta hautatutako sistemaren edo sistemen elementu guztiak definituko dira.

- Forjaketa zeramikoaren plakak eta hormigoi armatuzko lauza trinkoak.2.2.1. atalaren berdina eta nerbio eta kapitela guztien armadura sekzio guztiak.- Instalazioen planoak. Instalazio hauen guztien eskema izango ditu: (Gutxieneko eskala: 1/100)

- Elektrizitateari dagokionez, eraikinaren instalazio osoaren eskema aurkeztuko da, honakoak azalduta: argi-puntuak, etengailuak, konmutadoreak, sakagailuak, txirrinak, entxufe elektrikoak, telebista-entxufeak, telefono-konexioak, etab..

- Iturgintzari dagokionez, aparailu sanitarioak oinplanoan irudikatuko dira eta eskema batean, berriz, honakoak: ur hotz eta beroaren banaketa-sarearen, hustubideen, berogailuen eta galdara zentral edo banan-banakoaren. Gainera, adieraziko dira non dauden kokatuta hondakin-zutabeak eta uraren muntagak eta zer diametro duten.

- Beste instalazio batzuk.

Beste edozein instalazio baldin badago, haiek irudikatzen dituzten planoak.

Baldin eta aldez aurretik fabrikatutako profilak badira, planoak dagozkion sekzioekin osatuko da. Baldin eta aldez aurretik fabrikatuak badira, nahikoa izango da marka, mota eta erreferentzia aipatzea. Eskala: xehetasunak ahalik eta zehatzen adierazteko komeni dena.

c).- Agindu Tekniko Berezien agiria

Agiri honetan jasoko dira exekuziorako erabiliko diren materialen neurriak, kalitateak eta ezaugarriak buruzko aginduak, planoen bidez jaso ezin direnak, baina beharrezkoak direnak elementu bakoitzaren definizio osoa izateko. Ez da komeni, behar izanik gabe, gehiegi luzatzea eta, besterik gabe, baldintza orokorrak sartzea, izan ere, horiek guztiak badaude Arkitekturaren Zentro Esperimentalak idatzitako 1949ko Eraikuntzaren Baldintza-Agirian edo UNE Espainiako Arauetan; beraz, haien aipamen soilak nahikoa da, titulua idatzita edo artikulua aipatuta. Dena dela, nahikoa hedapena izango du egin beharreko obra osatzen duten elementuen baldintza berezi guztiak finkatzeko.

Legezko alderdiak nahiz alderdi ekonomiko eta teknikoak jorratu behar ditu. Alderdi teknikoaren barruan, honako atalak kontuan hartuko dira:

- 1. Lurrak prestatzea.
- 2. Zimenduak, zolatak.
- 3. Saneamendu-sare horizontala eta puntuak.
- 4. Egitura.
- 5. Hormigoia, ezaugarriak, sailkapena, plastikotasuna, saiakuntzak, etab.
- 6. Estalkiak eta terrazak.
- 7. Igeltserotza.
- 8. Zoladurak.
- 9. Alikatatuak.
- 10. Igeltsuak eta apainketa.
- 11. Iturgintza.
- 12. Elektrizitatea.
- 13. Arotzeria.
- 14. Beirak.
- 15. Pintura.
- 16. Harri-lanak.
- 17. Sarrailagintza.
- 18. Berokuntza.
- 19. Instalazio bereziak.
- 20. Igogailuak.
- 21. Lorezaintza eta urbanizazioa.

Adibide modura, Agiriak, gutxienez, hurrengo kapituluak izango ditu:

- Agiriaren definizioa eta norainokoa.
- Kontuan hartu beharreko xedapen teknikoak.
- Obraren gauzatze eta kontrol orokorra
- Unitate bakoitza neurtu, baloratu eta ordaintzeko modua zehaztea.
- Obrak azpikontratatzeko aukera.
- Lan-programa.
- Prezioak berraztertzearen erregulazioa.

- Kontratastaren sailkapena.
- Obra gauzatzen ari den bitartean izan beharrezko kezkak.
- Obrak hasi eta gauzatzeko epeak.
- Gauzatzean kontserbazioa eta berme-epea.
- Gastu orokorrak kontratastaren kargura.
- Aurrez ikusi gabeko unitateen erregulazioa.
- Materialak, gailuak, instalazioak eta ezaugarriak.
- Obra unitateen definizioa.
- Unitate bakoitza osatzen duten materialen ezaugarri bereziak.
- Obra-unitateen neurketa-irizpideak.

Eta, oro har, beste edozein xehetasun jasoko da; betiere, haien bidez Udalak izango badu ezagupide argiagoa kontratastarekin nola jokatu argitzeko.

d).- Neurketak eta aurrekontuak

Atal honetan hurrengoak sartuko dira:

- Unitate bakoitzaren neurketak.
- Prezioen koadroa, atalez atal emana.
- Aurrekontu partzialak.
- Aurrekontu orokorra.

Azkenik, aurrekontuak jasoko du exekuzio materialaren guztirakoa eta, horren ondoren, adieraziko dira kontrata bakoitzeko zenbatekoak, gastu orokorrak, industria-irabazia eta BEZ barne.

Neurketek nahikoa xehetasun emango dute, eta jasoko dituzte elementu guztien preskripzioak, ahalik eta zehatzen neurtuta eta identifikatuta gera daitezen, eta ez dadin kontraesanik gerta aurrekontua egiteko egindako neurketaren eta, ordaindu aurretik, egindako obraren ondorioz egingo den neurketaren artean.

Prezioen Koadroek dauden obra-unitate guztiak izango dituzte eta unitateak definitzeko orduan, zehaztasun handia izaten saiatuko da.

e).- Kalitatea kontrolatzeko plana

f).- Proiektuak gauzatu den lursailen ikerketa geoteknikoa izango du. Halaber, kontratuaren xedea hobeto zehazteko beharrezkoak diren aldez aurretiko txostenak eta ikerketak izango ditu.

g).- Proiektuaren barruan egongo da partzelaren jasotze topografikoa, UTM koordenatuetan, proposamena gainjarrita eta proposatutako horren jatorriarekiko kotak moldatuta.

h).- Beharrezkoa izanez gero, argien eta argiztapenaren proiektua

Kontratua burutzea

Adjudikaziodunak ezinbestean jarri beharko ditu kontratuaren xedea itundutako epean gauzatzeko beharrezkoak diren taldea eta bitarteko laguntzaileak. Nolanahi ere, Administrazioak desegoki iritzitako elementu oro baztertu ahal izango du.

Udal Bulego Teknikoko aparejadoreak eta arkitektoak zuzendu eta ikuskatuko ditu lanak, haiek emango dituzte-eta beharrezko jarraibideak kontratua egoki betetzeko.

Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du argibide osagarriak ipintzeko eta beharrezko laguntza tekniko emateko (agiriak eta nolanahiko argibideak) kontratuaren emaitza egoki baliatzearen.

Administrazioaren jabetzakoak izango dira egindako lan guztiak, edozein fasetan daudela ere, eta, ondorioz, edozein momentutan eskatu ahal izango du egindako azterlana edota zerbitzua emateko; betiere, behin betiko programarekin bateragarria bada eta lanen behar bezalako garapenari eragiten ez badio. Eta, edozein kasutan ere, baldintza-agiri honetan zehaztutako epe partzialak bete beharra dago.

Proiektuak ikus-onesteko apirilaren 14ko 7/1997 Legeak ezarritakoa beteko da, alegia, Lurzoruaren eta lanbide-elkargoen arloan neurri askatzaileak ezartzearen gainekoa; eta ikus-onesteko gastuak enpresaren edo elkargokidearen konturakoak izango dira.

Lanak aurkezteko formatua

Udal Bulego Teknikoko aparejadoreak eta arkitektoak lanak onartu eta egiaztatu ondoren, editatu eta koadernatu egingo dira; eta hori egindakoan, lan horiek amaitutzat joko dira.

Testu literalak jasotzen dituzten agiriak DIN-A4 tamainako orrietan aurkeztuko dira.

Eta jatorrizko planoak, berriz, DIN-A1 tamainako poliester-paperean marraztuko dira ez desitxuratzeko.

Proiektua behar bezala koadernatuta entregatuko da, dagokion elkargoak ikus-onetsia, eta LAU (4) aletan; horien kostua proiektua idazteko prezioaren barnean dagoela ulertuko da.

Proiektua hainbat fasetan editatu beharko da Udalak hala eskatuz gero; hartara, obrak egin ahala baten bat kontratatu behar bada, egin ahal izango da. Horrek baina izan dezake eraginik proiektua entregatzeko epeetan, zatiren batean nahiz epe osoan.

Dokumentazioen kopiak ekarriko badira ere, euskarri magnetikoan ere ekarri behar da, eta ezaugarri hauek beteko ditu:

(a) AURKEZTU BEHARREKO FITXATEGIEN EZAUGARRIAK


- | | |
|-------------------|--|
| 1. FORMATUA | DWG luzapena (Autocad programa), WORD eta PDFa. |
| 2. ESKALA | 1:100 eta zehaztapenak 1:20 |
| 3. KOORDENATUAK | Udal Kartogafia |
| 4. EDUKIERA | Ahal dela, gehienez ere: 3 Mb-ko fitxategia 3 Mb |
| 5. TESTUAK, KOTAK | Plotter bidezko eskalaren araberako neurriak |

BALDINTZA BEREZIAK

Agorrosin kirol gunearen gutxi gora beherako delimitazioa hurrengoa da:

Balio adostuko azalerak hauek dira:

- Gune osoaren azalera: 15.000m² inguru. Azalera horren baitan egon beharko dira:
- FUTBOL ZELAIA
 - 1. Fasea:
 - Gutxienez 2. Mailako Belar artifizialeko joko zelai egokituko neurriak dituez zelaia, argiztatua eta "itxia" eta atezaintzako belar artifizialeko entrenamendu eremuaren egokitzapena.
 - Hurrengo fase batean egiteko:
 - "Aldagelen" eraikina
 - Graderioa
- IBILTZEKO/KORRIKARAKO/PATINETARAKO/BIZIKLETARAKO... PISTA-IBILBIDEA
- ESPAZIO ERABILERA ANITZEN KIROL ESPARRUA
- URBANIZATZEKO OBRA OSAGARRIA



Agorrosingo futbol zelaiaren proiektua idazteko orduan kontutan izan beharrekoak (Erakunde teknikoek emandako aplikazio orokorreko arau espezifikoek aipatzen dituztenaz gain)

1. Proiektuaren definizioa; gutxienezko instalazioak

Gutxienez Bigarren Mailako futbol zelaiko neurriak dituen zelaia, argizapena, eta ureztatzeko sistema beharrezkoa bada.

Aldagela kopurua; 8 aldagela taldeentzako, 3-4 aldagela epaile eta entrenatzaileentzako.

Komunak, futbolarietarako herritarrentzako.

Elkartearentzako bulegoa.

2 Biltegi

Makina gela

Atezaintzako gunea

Graderioa, gutxienez egungo edukiera izango duena

Agorrosin futbol zelaiaren eremua (futbol zelaia + aldagelak gutxienez) ixteko aukera ahalbideratuko da, beti ere beste kirol esparruak (espazio erabilera anitzak) erabiltzeko aukera ahal den eta zabalena bermatuz.

Kirolgunearen zerbitzu eta azpiegitura guztiak eta haien eta gerorako aurreikuspenei erantzuna emango zaie. Instalazioak behar bezala funtzionatu dezaten beharrezkoak diren zerbitzu guztien azterketa, kalkuluak eta irtenbideak jaso beharko dira.

Eraikin berriak erabiltzen diren materialek indarrean dauden arau guztiekin bat etorri beharko dute, eta gainera, haiek mantentzea ahalik eta merke eta errazena izatea ziurtatu beharko da.

Jasangarritasunaren eta ingurumenaren aldetik bete beharreko parametro guztiak eta energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta ia batere energiarik ez kontsumitzeko parametro guztiak bete beharko ditu eraikin berriak.

Beste Administrazio publikoekin egon litezkeen eraginen azterketa eta irtenbideak zehaztu beharko dira, ala nola URA Ur Agentzia (honetan laguntzeko Udalak dagoeneko Herrigunearen estudio hidrauliko bat kontratatu du)

2. Sarrera kontrola

Gaur egun Ipintzara zein Agorrosin futbol zelaira joateko aukera dago polikiroldegi barrutik. Aukera hori mantendu beharko da Agorrosin futbol zelaira eta egingo diren aldageletara oinezkoen sarrera independentea. Aldagelen bolumen berri honek kontrol propioa izateko aukera emango duen espazio bat aurreikusita izango du.

Bermatu beharko da baita ete ibilgailuentzako sarrera bai Ipintzako futbol zelaira zein Agorrosingo futbol zelaira (bi sarrera desberdin izan daitezke)

Trafiko zein oinezkoen antolamendua aztertu beharko da, bai oinezkoena, bai ibilgailuena, garatu beharreko inguru osoari dagokionez, kirol ekipamenduari eta egungo eta geroko konexioak aztertu eta konponbideak emango ditu. Honetan erabateko garrantzia dauka bai kirolari eta ikusleen zirkulazioak zein ebakuazioa planak eta futbol zelaien mantenimendua ahalbideratzeak, ala nola bertan obrak egiteko aukera bermatzeko sarrera egoteak.

3. Espazio erabilera-anitzak

Agorrosin futbol zelaiaren diseinuak pista-ibilbide bat ahalbideratuko du *_gaur egun dagoenaren funtzio bera betetzeko_*. Ibilbide hau segurua izan beharko da futbol partiduak daudenean beraz, bi ibilbide diseinatu daiteke, bat luzeagoa, futbol erabilerarik ez dagoenean erabili ahal izango dena eta beste bat motzagoa, futbol erabilerarekin bat etorri daitekeena, beraz,segurtasun osoarekin erabili ahal izango dena.

Proiektuak kontutan hartu beharko du Agorrosin polikiroldegiak duen espazio falta eta akaso ahalbideratu ahalko du beraren ampliazioa.

Behin diseinua izanda, geratzen diren espazio soberakinetan aurreikusi daitezkeen beste kirol ekipamendu posible batzuk (hauek partaidetza prozesu baten ondorioz zehaztuko dira eta horretarako alternatiba desberdinak ahalbideratuko dira):

Atletismorako luzea.

Padelak.

Tenis pista

Skate parkea.

"Pump truck" pista.

Gimnasioa kalean.

Ibiltzeko-korrikarako-patinatzeko-bizikletentzako... zirkuitoa. Pista-ibilbidea.

4. Faseak

Belar artifizialeko futbol zelaiaren exekuzioa egungo aldagela prefabrikatu zein graderioarekin bateragarria izan behar da.

Proiektuak 1. Fase honetan gutxienez izan beharrekoak:

Belar artifizialeko joko zelai egokitua, argizatua eta "itxia" eta atezaintzako belar artifizialeko entrenamendu eremuaren egokitzapena.

KAUDIMEN TEKNIKOA

Zerbitzu-kontratu honetarako, enpresaburuen kaudimen teknika egiaztatuko da era honetara, eta hauek guztiak bete beharko dira:

a) Azken hamar urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, eta, gutxienez, 2 futbol zelai idazteko adjudikazioa edo kontratua hartu izana. Adieraziko dira kontratu horien zenbatekoa, futbol zelaiaren berezitasunak *_belar mota, aldagela kopurua zein bestelako instalazioak_*, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua. Hartzailea



sektore publikoko erakundea baldin bada, organo eskudunak luzatutako edo ikus onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatua baldin bada, horrek luzatutako ziurtagiriaren bidez, eta ziurtagiririk ez badago, berriz, enpresaburuak berak egingo du aitortpen bat. Agintaritza eskudunak, kasuan kasu, ziurtagiriak zuzenean jakinaraziko dizkio kontratazio-organuari.

b) Adieraziko da zer teknikarik edo zer teknikari-unitatek parte hartu behar duen kontratuan, enpresakoak bertakoak izan zein ez, eta bereziki aipatuko da zer pertsona arduratuko den kalitate-kontrolaz.

Puntu honetan jasoko dira, **GUTXIENEZ**, honako hauek:

PROIEKTUA IDAZTEKO:

Goi-mailako teknikari bat (arkitektoa).

Aparejadore bat

Instalazioetan aditua

Teknikari edo laguntzaile bakoitzaren titulazio akademiko eta profesionalak aurkeztuko dira, baita bateragarritasunaren berriazko aitortpena ere.

Eskaintza egiten duten enpresek aurkeztu beharko dituzte beren dokumentazioan prestazioa eskainiko duten pertsonen izenak eta bakoitzaren prestakuntza profesionala, kontuan hartuta pertsona horien ordezkorik ez dela onartuko. Zerrenda hori kontratuan sartuko da eta funtsezko betebeharraren izaera izango du, alegia, baliteke hori izatea kontratua suntsitzeko edo ez-betetzearen ondorioz zigorrek zehazteko arrazoia. Betebehar hori bera izango dute baita ere enpresa nagusiari laguntzen dioten enpresek edo osagarriek euren langile guztiekin.

ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

- FORMULAREN BIDEZ KUANTIFIKA EZIN DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (% 49)

PROPOSAMENAREN BORRADOREA, FUNTZIONAMENDU ETA ESPAZIOEN ESKEMA, 39 punturaino

Lizitatzailleak aurkezten duen proposamenaren kalitate funtzionala (sarrera eta irteerak, kontrolak) sortzen diren espazioen kalitatea (erabilera anitzeko pista + beste espazio erabilera-anitza _pista desberdinak...) eta fase desberdinen azterketa memoria baten eta planoen bidez jaso beharko ditu, eta horietan lizitatzailleak agerian utziko ditu zer nolako egokitzapenak edo aldaketak proposatzen dituen bere eskaintzan jaso duen irtenbidearen eskakizun tekniko berezietan erantzuteko, , eta nolako hobekuntzak jaso dituen.)

KONTRATISTAK ANTZEKO OBRETAN DUEN ESPERIENTZIA, ZERBITZU TEKNIKOA ETA GAITASUNA: 5 punturaino

Kontratistek egindako eskaintzek honako alderdi hauek jaso beharko dituzte:

A) Lanean parte hartuko duten langileen (giza baliabideen) zerrenda izenduna, langile bakoitzaren titulazioa eta antzeko obretan duen esperientzia zehaztuta. (Adierazitako gutxiengoak haunditzea baloratuko da proiektua idazteko orduan)

Baloratu egingo da kontratu honetarako bitarteko-kopurua eta tresna informatikoak udalak dituen sistema informatikoekin erabat bateragarriak ote diren.

Lizitatzaille bakoitzak proposatutako talde teknikoaren egokitasuna baloratuko da.

Baloratuko da, batik bat, tituludunak izatea (goi-mailakoak, erdi mailakoak eta diplomatuak) eta bidezaintzako obren teknikari espezializatuak izatea.

Laguntza eman behar duen teknikari bakoitzaren datuak emango dira, datu pertsonalak zein profesionalak eta bateragarritasun-adierazpena ere bai.

Antzeko lanetan taldeak duen esperientzia baloratuko da. Taldeko pertsonen titulazioa eta prestakuntza baloratuko dira.

B) Orobat, taldeko langile bakoitzari esleitutako lanak eta denborak argudiatzeko organigrama azaldu beharko da. Kontratu honetarako izendatutako pertsona bakoitzak bere lan-jardunaldi osoarekiko duen dedikazio-portzentajea adierazi beharko da, ehunekotan.

Atal honetan baloratuko dira funtzionamendu-organigrama, horren koherentzia eta taldearen dedikazioa eta osagarritasuna.

HOBKUNTZAK: 5 punturaino

Honako alderdi hauetan eragin dezaketen hobekuntzak: obra-bukaera ona, auzokideenganako eraginak, kirol/berdegune/jolastoki/aparkaleku inguruarekiko eraginak, egungo kiroldegiaren eta horren instalazioen erabileraren gaineko edo erabiltzaileenganako eraginak, zarata-eragozpenak edo beste eragozpen-mota batzuk, eta udalarentzat kostu erantsirik eragin gabe lehiakideak proposatzen dituen bestelako alderdi batzuk, eta inguru hurbileko berdeguneak eta akaberak –aurretik botatako eraikinen tokia– mantentzeko azterketa eta proposamena, horren barne obra-eraginak eta leheneratzeko lanak hartuta.

- FORMULAREN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (% 51)

1.PREZIOA 51 puntu

Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik merkeenari, eta gainekoei puntuazioa hurrengo formula aplikatuz emango zaie:

Eskaintzaren puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza merkeena zati baloratuko den lizitatuzailearen eskaintza, eta horren zatidura biderkatuko da irizpideari eman dakizkiokeen puntu guztiez. Hau da:

$Ob/Ol \times Z$

(Em: eskaintzarik merkeena; Oe: baloratzen ari den eskaintzailearen eskaintza; Z: irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntuak)

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin Agorrosin futbol-zelaia egiteko proiektu teknikoa idazteko zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoen plegu hau 2020ko azaroaren 26an emandako dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, 2020ko azaroaren 30a

IDAZKARIAK

B) Orobat, taldeko langile bakoitzari esleitutako lanak eta denborak argudiatzeko organigrama azaldu beharko da. Kontratu honetarako izendatutako pertsona bakoitzak bere lan-jardunaldi osoarekiko duen dedikazio-portzentajea adierazi beharko da, ehunekotan.

Atal honetan baloratuko dira funtzionamendu-organigrama, horren koherentzia eta taldearen dedikazioa eta osagarritasuna.

HOBEKUNTZAK: 5 punturaino

Honako alderdi hauetan eragin dezaketen hobekuntzak: obra-bukaera ona, auzokideenganako eraginak, kirol/berdegune/joiastoki/aparkaleku inguruarekiko eraginak, egungo kiroldegiaren eta horren instalazioen erabileraren gaineko edo erabiltzaileenganako eraginak, zarata-eragozpenak edo beste eragozpen-mota batzuk, eta udalarentzat kostu erantsirik eragin gabe lehiakideak proposatzen dituen bestelako alderdi batzuk. Inguru hurbileko berdeguneak eta akaberak –aurretik botatako eraikinaren tokia– mantentzeko azterketa eta proposamena, horren barne obra-eraginak eta leheneratzeko lanak hartuta.

- FORMULAREN BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEAK (% 51)

1.PREZIOA 51 puntu

Gehieneko puntuazioa emango zaio eskaintzarik merkeenari, eta gainekoei puntuazioa hurrengo formula aplikatuz emango zaie:

Eskaintzaren puntuazioa formula honetatik aterako da: eskaintza merkeena zati baloratuko den lizitzailearen eskaintza, eta horren zatidura biderkatuko da irizpideari eman dakizkiokeen puntu guztiez. Hau da:

$Ob/Oi \times Z$

(Em: eskaintzarik merkeena; Oe: baloratzen ari den eskaintzailearen eskaintza; Z: irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntuak)

DILIGENTZIA: Jasota gera dadin Agorrosin futbol-zelaia egiteko proiektu teknikoa idazteko zerbitzua kontratatzeko baldintza teknikoen plegu hau 2020ko azaroaren 26an emandako dekretu baten bidez onartutakoa dela.

Bergaran, 2020ko azaroaren 30a

IDAZKARIAK



The image shows a blue ink signature over a circular official stamp. The stamp contains the text 'BERGARAKO UDALA' at the top, 'AYUNTAMIENTO DE BERGARA' at the bottom, and 'SECRETARÍA DE PLAZA' in the center. There are also two small stars on either side of the central text.

CONDICIONES GENERALES

Objeto

Redacción del proyecto para la ejecución de campo de fútbol de Agorrosin (zona verde + vestuarios), elaboración del Estudio de Seguridad y Salud y Proyecto de Control de Calidad.

Este contrato incluye varias prestaciones, especificadas del siguiente modo:

- Redacción del proyecto.

Presupuesto

El presupuesto de licitación del contrato es de 85.305,79 euros + IVA (103.220 euros -IVA incluido-).

GASTOS DIRECTOS:..... 69.097,69

GASTOS INDIRECTOS:

- GASTOS GENERALES (13 %)... 11.089,75
- BENEFICIO INDUSTRIAL (6 %).. 5.118,35

SUMA EJECUCIÓN..... 85.305,79

IVA (21%)..... 17.914,21

SUMA TOTAL..... 103.220

El presupuesto de ejecución por contrata o base de licitación, incluido el 13 % de gastos generales, 6 % de beneficio industrial y 21 % de IVA, asciende a la cantidad de 103.220 euros.

Desarrollo de los trabajos. Fases de ejecución de los trabajos y plazo. Valoración y pago de los trabajos.

El plazo para la redacción del proyecto de ejecución, se iniciará contado a partir del día siguiente al de la firma del contrato.

Al aprobarse el programa de trabajos se establecerán los plazos parciales, que a los efectos legales correspondientes se entenderá que constituyen parte del contrato, con las consecuencias establecidas en dicha aprobación.

1) REDACCIÓN DEL PROYECTO

103.220 € IVA incluido

En primer lugar, una vez entregados los trabajos, se hará su valoración y a continuación se efectuará el pago, en varias fases, conforme se indica seguidamente:

Fase 1 Trabajos previos Máximo 2 semanas 10 %

En esta primera fase habrán de realizarse la recopilación de datos, topografía, estudio geotécnico si fuera preciso, ubicación de los servicios existentes y determinación de los criterios a seguir para la redacción del proyecto. Se enviará al equipo redactor el estudio hidráulico elaborado por el ayuntamiento, que habrá de ser tenido en cuenta para la redacción del proyecto.

Fase 2 Anteproyecto Máximo 3 semanas 20 %
